AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

LEHENDAKARITZA

5619

22/2012 DEKRETUA, abenduaren 15ekoa, Lehendakariarena, Herri Administrazio eta Justiziako sailburua izendatzeko dena.

Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 33.2 artikuluak eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8.b) artikuluak ematen dizkidaten ahalmenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulu.– Josu Iñaki Ercoreca Gervasio jauna, haren merezimenduak eta dohainak kontuan izanik, Herri Administrazio eta Justiziako sailburu izendatzen dut.

2. artikulua.– Herri Administrazio eta Justiziako sailburua Jaurlaritzaren idazkari izendatzen dut.

Herritar eta agintari guztiei agintzen diet bete ditzatela sailburuak legediaren araberako funtzioak baliatuz ematen dituen aginduak, betiere pertsona eta agintari legez dagokion begirunea erakutsita.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko abenduaren 15ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.